



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko abenduaren 4an

106 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Foru Lege proiektua. Honen bidez ezartzen da toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fonda zenbat den eta nola banatuko den 2001etik 2003ra bitarteko aurrekontualdietan (2. or.).
- Foru Lege proiektua. Lurzatiak edo lurzatieta dauden eraikinen salerosketa eta trukeetan lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideaz baliatzeko eskualdeak mugatzen ditu (9. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

- Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zeinuen hizkuntzaren onarpen ofiziala lortzeko neurriak har ditzan (12. or.).
- Mozioa, Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Urpekoaren aurkako Plataformarekin eta Gibraltargo Eskualdeko Udalen Mankomunitatearekin Tireless urpeko nuklearra Britainia Handira eraman dezaten (13. or.).
- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da toxikologia klinikoko unitate bat sor dezan (14. or.).
- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zeinuen hizkuntza ofizialki onar dezan (15. or.).
- Mozioa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztua. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da txosten bat aurkez dezan, anorexia eta bulimia duten gaixoen baldintzei, ezaugarriei eta tratamenduari buruz (16. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua. Honen bidez ezartzen da toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa zenbat den eta nola banatuko den 2001etik 2003ra bitarteko aurrekontualdian

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2000ko azaroaren 13an hartutako erabakiaren bidez, ondoko foru lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura: “Foru Lege proiektua. Honen bidez ezartzen da toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa zenbat den eta nola banatuko den 2001etik 2003ra bitarteko aurrekontualdian”.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehen.- Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa zenbat den eta nola banatuko den 2001etik 2003ra bitarteko aurrekontualdian ezartzen duen foru lege proiektua ohiko prozeduraz bideratzea.

Bigarrena.- Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Toki Administrazioiko Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2000ko abenduaren 27ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 2000ko azaroaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proiektua. Honen bidez ezartzen da toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa zenbat den eta nola banatuko den 2001etik 2003ra bitarteko aurrekontualdian

ZIOEN AZALPENEA

1978ko Konstituzioak, Estatuko lurralde antolamenduaz mintzo delarik, 140. artikuluan udalen autonomia bermatu ondoren, 142. artikuluan aurreikusten du, ezen Toki Ogasunek behar adina baliabide eduki beharko dituztela legeak kasuan kasuko korporazioei eratzikitzen dizkien eginkizunetan jarduteko eta gehienbat zein bere tributuez baliatuko dela, baita Estatuaren eta Autonomia Erkidegoen tributuetan parte hartzekoez ere.

Uztailaren 2ko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeak, 259. artikuluan, xedatzen du, bere eskumenak erabiltzeko eta Nafarroako toki entitateek dagozkien helburuak lortzeko, Toki Ogasunak behar dituzten baliabideez hornituko direla. Baliabide horiek Toki Ogasunari buruzko Foru Legearen bidez arautuko direla, Nafarroako toki araubidearen alorra den aldetik, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 18.2 artikuluan aurreikusi bezala.

Horrez gain, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko 260. eta 261. artikuluek xedatzen dute Toki Ogasunek Foru Komunitateko tributuetan parte hartuko dutela.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 123. artikulua zehazkiago arautzen ditu Nafarroako Ogasun Publikoan parte hartzekoaren nondik norakoak eta ezartzen, ezen udal agintaldi bakoitzeko lehen urteko azken hiruhilekoan, Nafarroako Gobernuak, Toki Araubideko Foru Batzordeak txostena eman ondoren,

Nafarroako Parlamentura igorriko duela, kasuan kasuko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrei buruzko proiektuarekin batera, Toki Entitateek Nafarroako zergetan hurrengo lau aurrekontualdietarako parte hartzeko fondoaren zenbatekoa ezartzen duen arauzko proiektu bat, baita fondo hori banatzeko formula ere, zuzentasun eta proportzionaltasun printzipioak aintzat harturik.

Lehengoa betetzeko asmoz, 23/1997 Foru Legea onartu zen, eta hark ezartzen zituen toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoan parte hartzeko fondoaren zenbatekoa eta banaketarako formula 1998 eta 1999 aurrekontualdietarako, urte horretan amaitzen baitzen udaletako agintaldiaren epea.

Abenduaren 30eko 18/1999 Foru Legeak, 2000. urteko ekitaldirako Nafarroako Gobernuaren Aurrekontuei buruzkoak, lehen aipatutako foru legean aurrez ikusitako formulari 2000. urterako luzapena ematea erabaki zuen.

Foru lege honek legezko aurreikuspenak denboran zehar partez beteko ditu, 2001, 2002 eta 2003 aurrekontualdietarako baita, hain zuzen ere, urte horretan izanen baitu amaiera udaletako oraingo agintaldiak.

Foru lege honek, lehenik, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoaren zenbatekoa finkatzen du, eta, hurrena, zenbateko hori transferentzia arrunt eta bestelako laguntzen kontzeptuan handitzeko sistema, bat etorriko dena kontsumoko prezioen indizeak Nafarroako Foru Komunitatean, ekainetik ekainera neurturik, porzentajez adierazten duen handitzearekin.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Legeko 123. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoaren arabera, ekitaldi bakoitzerako izendatutako partearen zenbatekoa transferentzia arruntan, kapital transferentzien eta bestelako laguntzen bidez banatzen da.

Transferentzia arruntak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko 123.3 artikuluan xedaturikoarekin bat, udalen eta kontzejuen artean banatuko dira. Banatzeko formulak zuzentasun eta proportzionaltasun irizpideak kontuan hartu beharko ditu, aipatu printzipio nagusiek zehazten dituzten parametroetan oinarriturik.

Zentzu honetan, foru lege honek Transferentzia Arruntan Fondoaren banaketa bat planteatzen du, berdintasun horizontalaren printzipioa aplikatzen duena; horrela, toki entitate bakoitzaren gastu premien arabera eta ahalmen fiskalaren alderantzira egiten da banaketa, bermatuz, betiere, gastu premia gehiago edota bere baliabideak

eskuratzeko ahalmen gutxiago duenak gehiago jasotzen duela.

Banaketa-sistemak hiru maila ditu. Lehenik, Iruñeko udalari diru bat izendatzen zaio, hiriburua-ren biztanle kopuruari eta gainerako udaletakoei dagokienaren arabera. Bigarrenik, Fondoan geratzen den gainerakoa udalen artean banatzen da. Eta, azkenik, udalei izendatutako dirutzatik kontzejuei dagokiena finkatzen da, kontzeju bakoitzaren biztanle kopuruaren arabera.

Bigarren mailako banaketa-sistema udal bakoitzarentzat finkatutako bi indize hauetan oinarritzen da: bata gastu premiara eta bestea ahalmen fiskalarena. Eta indize horiek lortzeko metodoak Nafarroako toki sektoreari buruz eskura dagoen kontabilitate informazioari prozedura estatistikoak aplikatu zaizkio.

Ahalmen fiskalaren indizeak 0,2642ko ponderazioa du, alegia finantzatu behar diren gastu arruntetatik indize horretan adierazirik dauden toki baliabide ekonomikoek osotara egiten dutena. Baliabide horiek honako hauek dira: hirilur eta landalur kontribuzioa, trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga eta herrilurren katastro balioa.

Gastu premien indizea estatistikoki tokiko gastu arruntan eragin handiena izan dute bost aldagaien konbinazio linealaren bidez lortzen da, haietako bakoitzaren gastuaren azalpen ahalmenaz ponderatuak. Aldagaiak hauek dira: entitate bakoitzeko populazioa, hirilurra netoa, 65 urtetik gorako populazioa, entitate banakatuen kopurua eta herrigunetik kanpo populazioa duten entitate banakatuen kopurua.

Banaketaren hirugarren mailak ezartzen du udalari izendatutako dotaziotik kontzejuei dagokien parte. Parte hori lortzeko bideketa haue egiten da: udalaren asignazioa bider % 30 bider kontzejuko biztanleek udalaren populazio osoari buruz duten proportzioa. Parametro horrek adierazten du kontzejuei gaurko eskumen banaketaren arabera dagokien gastuaren batez besteko proportzioa.

Banaketa-formula berriak ez du erabateko hausturarik nahi orain arteko sistemarekin, eta horregatik pentsatu da trantsizio prozedura bermatu bat ezartzea, bi ezaugarri konbinatzen dituen.

Alde batetik, banaketaren bigarren mailako udalei dagozkien asignazioen koefiziente zuzentzaile bat ezartzen da, populazioaren tamainaren arabera handitzen dena, eta udal bakoitzeko biztanleko 0,00002tan finkatu dena; horrela saihes-

ten dira entitateen tamainaren mailaketa arbitrariorak zekartzan jauzi akatsak.

Bestalde, formula eraginkorrako egiteko, kopuruei gutxienerako bermabide bat aplikatzen zaie. Bigarren bermabide hori hiru mailei aplikatzen zaie. Lehen eta bigarren maila udal guztiei urte bakoitzerako gutxienez 2000. urteko ekitaldian jasotako Fondoaren bermatzen zaie, 2000 urterako behin-behineko banaketa ezartzen zuen ekainaren 28ko Toki Administrazioaren kontseilariaren 117/2000 Foru Agindua ezartzen zuena. Hirugarren mailan kontzeju bakoitzari, gutxienez, lege hau aplikatzen den urte bakoitzerako, aipatu Foru Aginduaren arabera 2000. urtean jasotako Fondoaren bermatzen zaio, eskola-unitateen aldagaierengatik 1997an kontzejuak jasotakoa salbu, Toki Administrazioaren kontseilariak emandako urriaren 13ko 97/1997 Foru Aginduaren arabera, eta kontzejuak dauden udalarentzako berme gisa gelditzen da lehen fasean udal bakoitzari bermatutakoaren eta kontzeju bakoitzari bermatutakoaren arteko diferentzia.

Kapital transferentzietan dagokienez, haien banaketa 2001-2003rako Toki Azpiegituren Hirurteko Planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legearen ezarria da, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko 123. artikuluko 4. idatz-zatiari jarraikiz.

Fondoaren banatzeko azkeneko kapitulari bestelako laguntzak deritza eta bertan Iruñeko Udaleri "Iruñeko Hiriko Hiriburutza Agiria" kontzeptuagatik dagokion dotazioa eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 72.2 artikuluan interes erkideak babestu eta sustatzeko osaturiko toki entitateen federazio edo elkargoentzako laguntza ekonomikoari buruz dagoen aurreikuspena betetzeko dotazioa agertzen dira.

I. KAPITULUA

Dotazio osoa eta eguneratzea

1. artikulua. Fondoaren dotazioa.

Publikoaren tributuetan 2001eko ekitaldirako parte hartzeko Fondorako guztira 26.431.980.000 pezetako dotazioa ezartzen da, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan agertuko dena.

2. artikulua. Fondoaren banaketa.

2001eko ekitaldirako esleituriko partearen zenbatekoa honela banatuko da:

1. Transferentzia arruntak 16.719.799.000 pezeta.

2. Kapital transferentziak 6.696.261.000 pezeta.

3. Bestelako laguntzak:

a) Iruñeko Udaleri, Hiriburutza Agiriagatik 2.113.823.000 pezeta.

B. Nafarroako gainerako udalei: 872.097.000 pezeta.

C. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari 30.046.000 pezeta.

3. artikulua. Aurrekontuko kontsignazioa.

2000 eta 2003ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko fondoaren kontsignazioa Transferentzia arruntetan, Kapital transferentzietan eta Bestelako laguntzetan banatuko da.

Kapital transferentzietan dagokien kontsignazioa 7.096.981.000 pezeta izanen da 2002 urterako eta 7.069.200.000 2003 urterako, 2001-2003rako Toki Azpiegituren Hirurteko Planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legearen ezarria bezala.

2002 eta 2003 urteetarako transferentzia arruntetarako eta bestelako laguntzetarako dirutza aurreko artikuluan kontzeptu horietarako 2001 urterako aurrez ikusitakoa izanen da, eta horri erantsiko zaio kontsumoko prezioen indizeak Nafarroako Foru Komunitatean, ekainetik ekainera neuriturik, portzentaje adierazten duen handitzea.

II. KAPITULUA

Transferentzia arruntentzako asgnazioa

4. artikulua. Transferentzia arruntentzako asgnazioa Iruñeko Udalarentzat.

Hasiera batean Iruñeko Udaleri dirutza hau asgnatuko zaio: 2. artikuluko I. atalean aurreikusitako dotazioari udal horrek Nafarroako populazio osoari buruz duen biztanle portzentajea aplikatzen sortzen dena.

5. artikulua. Gainerako udalen artean banatuko den dirutza.

2. artikuluko I. idatz-zatiko dirutza osoa, Iruñeko asgnazioa kendu ondoren, gehi 2. artikuluko B letrako III. idatz-zatian aurreikusitako dotazioa hasiera batean Nafarroako gainerako udalen artean banatuko da beren banaketa indize ponderatuekiko proportzio zuzenean.

6. artikulua. Gainerako udaletarako hasierako asignazioa.

Udal bakoitzeko hasierako asignazioa hone-la kalkulatzeko, banatuko den dirutzari udal bakoitzeko banaketa-indize ponderatua aplikatuko zaio. Banaketa-indize ponderatua, berriz, gastu premien eta ahalmen fiskalaren indizeen arteko diferentzia kalkulatuaz lortzen da, honako urrats hauek eginez:

a) Gastu premien indizea gastu premiaren bost aldagai adierazleen konbinazio linealaren bidez lortzen da, haietako bakoitzak gastu horren azalpenak emateko duen ahalmenaren arabera ponderaturik. Erabilitako aldagaiak honako hauek dira:

- Udal bakoitzeko populazioak Nafarroako populazio osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

- Udal bakoitzaren hirilurraren azalera netoak Nafarroa osoko hirilurren azalera osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea. Hau da hirilurraren azalera netoa: planoaren araberako zabaleraren (azalera grafikoaren) eta lurzatie batura gisa duen zabaleraren (azalera alfanumerikoaren) arteko diferentziaren ondoriozkoa.

- Udal bakoitzeko 65 urtetik gorako populazioak Nafarroa osoko 65 urtetik gorako populazio osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

- Udal bakoitzean hirigunetik kanpo populazioa duten entitate banakatuen kopuruak Nafarroa osoan hirigunetik kanpo populazioa duten entitate banakatuen kopuru osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

- Udal bakoitzeko entitate banakatuen kopuruak Nafarroa osoko entitate banakatuen kopuruari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

b) Ahalmen fiskalaren indizea lortzeko, udalen ahalmen fiskala eta ondare ahalmenaren adierazgarri diren lau aldagaien konbinazio lineala erabiliko da, urte eredu baterako aldagai bakoitzari dagokion dirubilketak dirubilketen kopuru osoari buruz duen pisuaren arabera ponderaturik. Erabiliko diren aldagaiak honako hauek dira:

- Udal bakoitzeko Hirilur Kontribuzioaren likidazio oinarri doituak Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren likidazio oinarri doitu baturari buruz egiten duen portzentajea. Oinarriak koefiziente zuzentzaile baten bidez doi-

tzen dira merkatu balioetara, balioak handitzen dituen merkatu baliotik urruntzen diren heinean.

- Udal bakoitzeko Landalur Kontribuzioaren likidazio oinarri doituak Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren likidazio oinarri doitu baturari buruz egiten duen portzentajea.

- Udal bakoitzeko Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko Zergaren eskubide likidatuak Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren eskubide likidatu baturari buruz egiten duen portzentajea.

- Udal bakoitzeko herrilurraren balio katastralak Nafarroa osoko (Iruña alde batera utzirik) balio horien baturari buruz egiten duen portzentajea. Kontzejuak beren mugapean dituzten udalen kasuan, kontzejuetan ez dauden herrilurren balioa bakarrik hartuko da kontuan.

c) Gastu premien indizeari ahalmen fiskalaren indizea (0,2652 faktoreaz ponderaturik) kenduz lortzen da udal bakoitzarentzako banaketa-indizea, honako formula honen arabera:

$$\text{FTC} = 0,8589 \times \text{PPOB} + 0,1976 \times \text{PMA65} + 0,2766 \times \text{PURB} + 0,0210 \times \text{PNDISEM} + 0,0049 \times \text{PENTSING} - 0,1680 \times \text{CTU} - 0,0264 \times \text{CTR} - 0,0702 \times \text{IVTM} - 0,0944 \times \text{VCC}$$

Non hau ulertu behar den:

- FTC udal bakoitzaren banaketa-indizea da.

- PPOB udal bakoitzaren populazioak Nafarroako populazio osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea da.

- PURB Udal bakoitzaren hirilurraren azalera netoak Nafarroa osoko hirilurren azalera osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea da. Hau da hirilurraren azalera netoa: planoaren araberako zabaleraren (azalera grafikoaren) eta lurzatie batura gisa duen zabaleraren (azalera alfanumerikoaren) arteko diferentziaren ondoriozkoa.

- PMA65 Udal bakoitzeko 65 urtetik gorako populazioak Nafarroa osoko 65 urtetik gorako populazio osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea da.

- PNDISEM Udal bakoitzean hirigunetik kanpo populazioa duten entitate banakatuen kopuruak Nafarroa osoan hirigunetik kanpo populazioa duten entitate banakatuen kopuru osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea da.

- PENTSING Udal bakoitzeko entitate banakatuen kopuruak Nafarroa osoko entitate banaka-

tuen kopuruari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea da.

- CTU Udal bakoitzeko Hirilur Kontribuzioaren likidazio oinarri doituak Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren likidazio oinarri doituaren baturari buruz egiten duen portzentajea da. Oinarriak koefiziente zuzentzaile baten bidez doitzen dira merkatu balioetara, balioak handitzen dituen merkatu baliotik urruntzen diren heinean.

- CTR Udal bakoitzeko Landalur Kontribuzioaren likidazio oinarri doituak Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren likidazio oinarri doituaren baturari buruz egiten duen portzentajea da.

- IVTM Udal bakoitzeko Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko Zergaren eskubide likidatuek Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren eskubide likidatuaren baturari buruz egiten duen portzentajea da.

- VCC Udal bakoitzeko herrilurraren balio katastralak Nafarroa osoko (Iruña alde batera utzirik) balio horien baturari buruz egiten duen portzentajea da. Kontzejuak beren mugapean dituzten udalen kasuan kontzejuetan ez dauden herrilurren balioa bakarrik hartuko da kontuan.

d) Aurreko idatz-zatian lortutako banaketa indizeak udal bakoitzerako populazioaren tamainaren arabera kalkulatu den faktore zuzentzaile batez ponderatuko dira; hain zuzen ere, unitatea gehi populazioaren produktua bider 0,00002 izanen da faktore hori. Udalen batean ateratzen den banaketa indizea negatiboa baldin bada, zero balioa emanen zaio, eta banaketa indizeak gainerako udaletarako birkalkulatuko dira, halako moduan non horien guztien batuketa unitatea bezainbeste izanen den. Banaketa indize ponderatu horixe aplikatuko zaio banatu beharreko kopuruari, kopuru hori udal bakoitzari hasiera batean dagokiona kalkulatzeko 5. artikuluan ezarritako moduan kalkulatu ondoren, hain zuzen ere.

7. artikulua. Bermearen aplikazioa eta udaletarako behin betiko asignazioa.

1. Toki entitateek transferentzia arrunten kontzeptuan toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondotik 2001, 2000 eta 2003ko aurrekontualdietan jasoko duten dirutza ez da sekula izanen 2000. urteko behin-behineko banaketa ezartzen duen Toki Administrazio kontseilariaren 28ko 117/2000 Foru Aginduaren arabera jasotako dirutza baino gutxiago.

2. Iruñeko Udalarari 2001, 2002 eta 2003. urteetan jasotako diru kopurua bermatuko zaio, aurreko idatz-zatian ezarritakoari jarraituz. Hiriburutza Agi-

riaren kontzeptua araubide hori emateari buruzko abenduaren 2ko 16/1997 Foru Legean ezarritakoaren arabera izanen da.

3. 4, 5 eta 6. artikulua aplikatuz iristen ez direnentzat berme hori efektiboa izan dadin, behar diren kopuruak kenduko dira dagokien bermearen gehikuntzari proportzionalki bermatu zaizkien kopuruak gainditzen dituzten udalei hasiera batean zegozkien kopuruetatik.

8. artikulua. Kontzejuentzako hasierako asignazioa.

Beren mugapean kontzejuak dituzten udalen kasuan, aurreko artikulua arabera kalkulatuako parteari kontzejuen artean banatzeko zati bat kenduko zaio. Entitate hauen parte biderketa honen bidez lortuko da: udalaren dotazioa bider % 30 bider kontzejuko biztanleek udaleko populazio osoari buruz egiten duten portzentajea. Geratzen den dirutza da udal bakoitzaren hasierako asignazioa.

9. artikulua. Beren mugapean kontzejuak dituzten udaletako bermearen aplikazioa eta behin betiko asignazioaren kalkulua.

1. Kontzejuak eta beren udalak transferentzia arrunten kontzeptuan toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondotik 2001, 2000 eta 2003ko aurrekontualdietan jasoko duten dirutza ez da sekula izanen 2000. urteko behin-behineko banaketa ezartzen duen Toki Administrazio kontseilariak ekainaren 28an emandako 117/2000 Foru Aginduaren arabera jasotako dirutza baino gutxiago.

2. Kanpo geratzen dira 1 zenbakian ezarritakotik, Toki Administrazio kontseilariak urriaren 13an emandako 97/1997 Foru Aginduaren arabera, Eskola Unitateen aldagaiarengatik 1997an Transferentzia Arrunten Fondo Orokorretik parte bat jaso zuten kontzejuak. Horiei aipatu zenbakian adierazitako gutxieneko zenbatekotik kontzeptu horrengatik jasotakoa. Azken zenbateko hori bere mugapean kontzejuak dituen udalak 2000 urtean jasotakoari erantsiko zaio bermearen zenbatekoa finkatzeko.

3. Berme hori erabilgarri egiteko, kontzejuei eta bere mugapean kontzejuak dituen udalari, banaketa-formula aplikatuz lortzen ez badute, 8. artikulua arabera hasiera batean izendatutakotik behar dena kenduko zaie bermatutakoak baino zenbateko handiagoak lortzen dituzten udal bereko entitateei, beren bermeari buruz duten gehikuntzaren proportzio zuzenean.

10. artikulua. Erabilitako aldagaiak.

1. Nafarroako Udalei banaketan dagokiena kalkulatzeko premia aldagaien balioak lortzeko, foru lege honen Eranskinean jasotako iturriak erabiliko dira. Aldagai guztien erreferentzia urtea hau izanen da: banaketa egiten den urteko maiatzaren 1ean Estatistika Institutu Nazionalak udalen populazioaren estatistikaren datu ofizialak dauzkana. Erreferentzia urteko daturik ez bada, dauden azken urtekoa hartuko da.

2. Artikulu honetan ezarritakoa galarazi gabe, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren datutzat hartzen da Toki Administrazioiko Departamentuan Toki Ogasunen Foru Legearen arabera aurkeztu behar zen azken ekitaldiko kontuen espedientetik lortzen dena edo bestela ekitaldi horretarako aurrekontuaren likidazio espedientetik lortua, Toki Ogasunen Foru Legeko 227.2 artikuluan eta aurrekontuaren eta gastu publikoaren arloan aipatu foru legea garatzen duen 270/1998 Foru Dekretuko 84. artikuluan xedatutakoaren arabera. Aurreko hori ez baldin bada eskuratu, eskura den azken datua eguneratuko da, ehuneko 10eko urteko tasa aplikatuz.

3. Kontzejuei dagokien zatia kalkulatzeko erreferentzia urteztat honako hau hartuko da: banaketa egiten den urteko maiatzaren 1ean Estatistika Institutu Nazionalak bai udalen populazioaren estatistikaren datu ofizialak bai Nafarroako Estatistika Institutuak kontzejuen populazioaren estatistikaren datuak dauzkana, bi-biak urte berari buruzkoak betiere.

4. Aurreko zenbakietan ezarritakoagatik ere, banaketaren aldagaietan eragina duten udal edo kontzejuen bereizketa edo anexio prozesuak gertatzen direnean, aldagaien zenbatekoa berriro kalkulatu da banaketa egiten denean duten egoera administratibora egokitzeko, baldin eta egoera administratibo horri buruzko datu ofizialik ez bada.

11. artikulua. Ordainketa

1. Toki entitateek Nafarroako Ogasun Publiko-ko tributuetan parte hartzeko fondoko diru-kopuruak lau alditan ordainduko dira ekitaldi bakoitzean, hiruhileko natural bakoitzeko lehenengo hamabostaldian, hain zuzen ere.

2. Lehenengo bi ordainketek aurreko ekitaldian behin betiko harturikoaren ehuneko 25 eginen dute.

3. Hirugarren ordainketan toki entitate bakoitzari dagokion urteko azkeneko asignazioa kalkulatu da eta aurreko ordainketei erantsirik asignazio horren % 75 osatu arteko kopurua

ordainduko. Eta gelditzen dena laugarren hiruhilekoa bukatzerako ordainduko da.

4. Udalen eta haien mugapean dauden kontzejuen arteko hitzarmen sinaturik baldin bada, entitate horiei pagatzen zaiena sinatutako hitzarmenean ageri den moduan egiten ahal da, banaketa-formularen aplikazioaren arabera entitate bakoitzari hasieratik dagokiona galarazi gabe.

III. KAPITULUA**Kapital transferentzien asignazioa**

12. artikulua. Kapital transferentzietarako partearen banaketa.

Kapital transferentzietarako partearen zenbatekoa 2001-2003 eperako Toki Azpiegituren Hirurteko Planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legean eta hori garatzen duten xedapenetan xedaturikoaren arabera banatuko da.

IV. KAPITULUA**Gainerako laguntzen asignazioa**

13. artikulua. Gainerako laguntzen banaketa.

1. Iruñeko Udalarari "Iruñeko Hiriko Hiriburutza Agiria" delakoagatik eman beharrekoari dagokionez, beste laguntzen partearen zenbatekoa agiri hori ematen duen foru legean xedaturikoaren arabera arautuko da.

2. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eman beharrekoa foru lege honetako 8. artikuluan transferentzia arruntetarako aurreikusitako bezala ordainduko da.

3. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eman beharrekoa transferentzia arruntentzat foru lege honen 11. artikuluan ezarritako modu berberan ordainduko da.

Xedapen gehigarria

Toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte-hartzeko Fondo Orokorraren transferentzia arruntan banaketak (Toki Administrazio kontseilariak ekainaren 25ean emandako 1999 urterako behin-behineko banaketa ezartzen duen 150/1999 Foru Aginduaren arabera eta 2000 urterako behin-behineko banaketa ezartzen duen Toki Administrazio kontseilariaren 1217/2000 Foru Aginduaren arabera eginak) behin betiko bihurtzen dira.

Azken xedapena

Foru lege honek 2001eko urtarrilaren batean hartuko du indarra.

Eranskina
Banaketa-formulan aplikatutako
aldagaiak eta iturriak

Udal bakoitzeko populazioa. Estatistika Institutu Nazionalak emana, urte bakoitzaren urtarrilaren 1a erreferentziazat harturik.

Kontzeju bakoitzeko populazioa. Estatistika Institutu Nazionalak emana, urte bakoitzaren urtarrilaren 1a erreferentziazat harturik.

Udal bakoitzeko 65 urtetik gorako populazioa. Estatistika Institutu Nazionalak emana, urte bakoitzaren urtarrilaren 1a erreferentziazat harturik.

Hirilur azalera netoa. Planoan agertzen den azaleraren (azalera grafikoaren) eta lurzati batura gisa duenaren arteko diferentzia (azalera alfanumerikoa). Nafarroako Gobernuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak emana udalen populazioen erreferentzia urte bererako.

Entitate banakatutzat hartzen diren populazio-guneeen kopurua. Estatistika Institutu Nazionalak emana.

Populazioa herrigunetik kanpoan duten entitate banakatutzat hartzen diren populazio-guneeen kopurua. Estatistika Institutu Nazionalak emana.

Hirilur Kontribuzio Doituaren Likidazio Oinarria. Honako hau da:

Udal bakoitzeko Hirilur Kontribuzioaren Likidazio Oinarria bider merkatuko balioetara doitzeko

koefizientea. Nafarroako Gobernuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak ematen ditu biak, eta horretarako datuak Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro fiskaletik hatzen ditu, udalen populaziorako erabilitako erreferentzia urte berari buruz.

Udal bakoitzaren Landalur Kontribuzioaren Likidazio Oinarria.

Nafarroako Gobernuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak ematen du, eta horretarako datuak Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro fiskaletik hartzen ditu, udalen populaziorako erabilitako erreferentzia urte berari buruz.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko Zergaren eskubide likidatuak. Toki Administrazio Departamentura igorritako udaleko kontabilitate likidazioetatik lortzen da. Igorri ez baldin badira, foru lege honen 10. artikuluko 2. puntuan ezarritako irizpidearen arabera kalkulatu da.

Herriluraren balio katastrala. Udaletako populazioarentzako erreferentzia urte berean Udal bakoitzaren herrilurrek duten balio katastrala da. Beren mugapean kontzejuak dituzten udaletako kontzejuen herrilurrak kanpo geratzen dira. Nafarroako Gobernuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak ematen du, eta horretarako datuak Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro fiskaletik hartzen ditu.

Foru Lege proiektua. Lurzatiak edo lurzatieta dauden eraikinen salerosketa eta trukeetan lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideaz baliatzeko eskualdeak mugatzen ditu

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2000ko azaroaren 13an hartutako erabakiaren bidez, ondoko foru lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura: “Foru Lege proiektua. Lurzatiak edo lurzatieta dauden eraikinen salerosketa eta trukeetan lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideaz baliatzeko eskualdeak mugatzen ditu”.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Lurzatiak edo lurzatieta dauden eraikinen salerosketa eta trukeetan lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideaz baliatzeko eskualdeak mugatzen dituen Foru Lege proiektua ohiko prozeduraz bideratzea.

Bigarrena.- Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2000ko abenduaren 27ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 2000ko azaroaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proiektua. Lurzatiak edo lurzatieta dauden eraikinen salerosketa eta atzera eskuratzeko eskubideaz baliatzeko eskualdeak mugatzen ditu

ZIOEN AZALPENEA

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legeak, uztailaren 4koak, adierazten du Nafarroako Parlamentuak foru lege onar dezakeela eskualdeen mugaketa, Foru Komunitateko Administrazioak eta Udalek lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidearen peko lurzati eta eraikuntzen salerosketa eta truke bidezko eskualdatzeetarako.

Honelako neurri baten helburuak, aipatu foru legearen arabera, honako hauek dira: zoruaren merkaturaren arautzea, ondare publikoa sortu edo hedatzea edo dotazio defizitak leuntzea, betiere, espiritu eta filosofia bakar baten ildotik, alegia, herri botereen esku-hartzearen bidez zoruak guztien interesarekin bat datorren erabilpena izatea; izan ere, horixe agintzen du gure Konstituzioaren 47. artikulua, eta horrela ematen zaio bere funtzio soziala betetzeko bidea, jabetza-eskubidearen edukiak bere baitan biltzen duen funtzioa, aipatu Arau Nagusiko 33. artikuluekin bat.

Logikaz, lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidearen peko lurzati edo eraikuntzak dauden eskualdeetako mugaketak, orain arte azaldutakoarekiko koherentzia gordez, zehaztu egin behar dira alde horietan, kontuan hartuz, hirigintza eta lurralde aurreikuspenak direla medio, dauden lekuan daudelako, bizilekuak edo dotazioak bertan ezar daitezkeela, ez bakarrik antolamendu instrumentuetan espresuki adierazitako planeamendu zehaztapenen arabera, baizik eta, garatutako edo garapen bidean diren eskualde edo azpiegitura publikoetatik hurbil egotearen ondorioz, hiri garapenaren joeren arabera.

Foru lege honek onartzen duen mugaketak hartzen dituen eskualdeak honako hauek dira: 1. eskualdea (Z-1), Iruña, Eguesibar eta Aranguren-ko udal mugapeak; 2. eskualdea (Z-2), Eguesibar-ko udal mugapeak; 3. eskualdea (Z-3), Zizur eta Galarko udal mugapeak; 4. eskualdea (Z-4), Zizur Nagusia eta Zizur Txikia udal mugapeak.

Bizilekuak dauden eskualdeetatik lurzatiak hurbil egoteak, bide azpiegiturak eginak edo egitekoak izateak eta hazteko joera berezkoak bihurtzen ditu eskualde hauek presentzia eta eragin publiko izan behar duten etorkizuneko bizileku edo dotazioen hedaleku; beraz, komeni da zorua erreserbatzea, helburu horietarako ondare publikoa sortu eta gerta litezkeen tirabira espekulatiboetatik babesteko.

1. artikulua. Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko 277. artikuluan ezarritakoaren arabera, foru lege honen ondorioetarako honela izendatuko diren eskualdeak mugatzen dira: 1. eskualdea (Z-1), 2. eskualdea (Z-2), 3. eskualdea (Z-3), 4. eskualdea (Z-4). Eskualde horien esparruak foru lege honen Eranskinean daude jasota.

2. artikulua. Eskualde horietako lurzati edo eraikinen salerosketa edo truke bidezko eskualdeketetan Administrazioak eta Udalek zorua lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidea izanen dute.

3. artikulua. 1. Zorua lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubide horiez baliatzeko epea 8 urtekoa izanen da.

2. Foru lege honek mugatutako eskualdean sartutako zoruak, hirigintza aldetik, bizileku gehienbat sozialetarako edo dotazioetarako erabiltzeko dira.

Azken xedapena

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean izanen du indarra eta automatikoki galduko indar hori 3. artikuluko 1 zenbakian adierazten den epea betetzen denean.

Eranskina

Eskualdearen izena: 1. eskualdea (Z-1)

Udalak: Iruña, Eguesibar eta Aranguren.

Muga geografikoak: ipar ekialdean Monte Campamento edo Badostaingo errepidea du muga; ekialdean Subitzako ubide zaharra; mendebaldean Ekialdeko Ingurubidea eta hegoaldean "Cerro de Aranguren" izeneko muinoak.

Mugatutako esparrua honako lurzati hauek osatzen dute:

Iruña:

Iruñeko 16. Poligonoko 77, 78 eta 79 lurzatiak.

Aranguren:

Aranguren Ibarreko 1. Poligonoko 336, 337, 338, 339, 348, 398, 410, 411, 417, 418, 421, 424, 427, 428 eta 429 eta Aranguren Ibarreko 2. Poligonoko 260, 261, 262, 425, 426, 427, 428, 429, 430, 431, 432, 433, 434, 435, 436, 437, 438, 439, 451, 464, 466, 467, 468, 469, 470, 471, 472, 473, 374, 375, 476, 477, 478, 480, 481, 482, 483, 484, 485, 486, 487, 488, 489, 491, 492, 493, 494, 495, 496, 497, 505, 545, 546, 565, 566, 567, 572, 579, 868, 869, 872, 873, 874, 925, 926 eta 1015 lurzatiak.

Eguesibar:

Eguesibarko 17. poligonoko 201, 202, 203, 204, 205, 206, 207, 208, 209, 210, 211, 212, 213, 214, 215, 223, 224, 225, 226, 227, 228 eta 229 lurzatiak eta Eguesibarreko 18 poligonoko 71, 72, 73, 74, 75, 76, 77, 78, 80, 81, 83, 84 eta 260 lurzatiak.

Eskualdearen izena: 2. eskualdea (Z-2).

Udala: Eguesibar.

Muga geografikoak: iparraldean, Sarrigurengo udalez gairdiko plan sektoriala eta Arangurenko errepidea; hego-ekialdean Ardatz-Badostaingo lurzati-berrantolamenduko bidearekin; hegoaldean, Jasokundeko Ama Birjinaren baseliza dagoen muinoa eta mendebaldean, Elizmendiko bidea.

Mugatutako esparrua honako lurzati hauek osatzen dute:

Eguesibar:

Eguesibarreko 14. poligonoko 259, 260, 263, 264, 265, 266, 267, 268, 269, 270, 271, 272, 273, 275, 276, 277, 278, 279, 280, 281, 282, 283, 442 eta 443 lurzatiak; Eguesibarreko 17. poligonoko 264, 265, 266, 267, 268, 269, 270, 271, 275, 276, 277, 278, 279, 280, 281, 284, 285, 286 eta 287 lurzatiak; Eguesibarreko 19. poligonoko 267, 268 eta 269 lurzatiak; Eguesibarreko 20. poligonoko 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8 eta 14 lurzatiak.

Eskualdearen izena: 3. eskualdea (Z-3).

Udalak: Zizur eta Galar.

Muga geografikoak: iparraldean Ezkirozko bidea du muga; hegoaldean Zizur-Ezkirotz erreka eta mendebaldean Galarko errepidea.

Mugatutako esparrua honako lurzati hauek osatzen dute:

Zizur:

Zizurko 1. Poligonoko 348, 349, 350, 351, 352, 354, 355 eta 444 lurzatiak.

Galar:

Lurzatia: Galarko 3. Poligonoko 102a.

Eskualdearen izena: 4. eskualdea (Z-4).

Zizur Nagusia eta Zizur.

Muga geografikoak: iparraldean Gazolazko mendiak ditu muga; hegoaldean Iruña-Logroño N-111 errepidea; ekialdean Zizur Nagusiko hirigunea eta mendebaldean Medio, Gazolaz eta Arzuriko bidea.

Mugatutako esparrua honako lurzati hauek osatzen dute:

Zizur Nagusia: Zizur Nagusiko 2. Poligonoko 69, 74, 753, 754, 755, 756, 757, 758, 759, 760,

761, 762, 763, 764, 765, 766, 767, 768, 769, 770, 771, 772, 773, 782, 783, 784, 785, 786, 787, 788, 789, 790, 791, 792, 793, 794, 795, 796, 797, 798, 799, 800, 801, 802, 803, 804, 805, 806, 808, 809, 810, 811, 812, 813, 814, 815, 816, 817, 818, 904, 905, 906, 910, eta 911 lurzatiak.

Zizur Txikia:

Zizur Txikiko 3. Poligonoko 75, 76, 78, 79, 80, 81, 82, 83, 84, 223, 224, 225, 226, 227, 228, 230, 231, 232, 234, 235, 236, 238, 239, 241, 242, 243, 244, 245, 246, 247, 248, 249, 250, 251, 252, 259, 359 eta 378 lurzatiak.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zeinuen hizkuntzaren onarpen ofiziala lortzeko neurriak har ditzan

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zeinuen hizkuntzaren onarpen ofiziala lortzeko neurriak har ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Gizarte Gaietako Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaida dadin: Nafarroan zeinuen hizkuntza onartzeari buruzko mozioa.

Zioen azalpena

Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako Gorren Elkartearekin izandako lan bileraren ondotik, eta gizatalde zabal honek gainerako herritarren parean eta aukera berdinekin bizitzeko dituen zailtasunez eta trabez jabeturik, bai eta komunikazio, hezkuntza, kultura eta lana eskuratzeko haien arazoak ezaguturik, honako mozio hau aurkeztu du.

Erabaki proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zeinuen hizkuntzaren onarpen ofiziala lortzeko behar diren neurriak har ditzan, Nafarroako gorren eskubideak gainerako pertsonen berdinak izateko bidean aurrera egiteko xedearekin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zeinuen hizkuntza pixkanaka txerta dezan gure Foru Komunitateko hezkuntza sisteman, mota honetako minusbaliotasuna dutenen integrazioa eta kalitatezko hezkuntzarako eskubidea bermatzeko.

3. Era berean, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako gorren zentsua eta haien egoerari buruzko txosten bat egin ditzan, kultura, komunikazio eta lana eskuratzeari dagokionez, oinarritzko beharrei erantzuna eman zitzaizen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 21ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Urpekoaren aurkako Plataformarekin eta Gibraltargo Eskualdeko Udalen Mankomunitatearekin Tireless urpeko nuklearra Britainia Handira eraman dezaten

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Urpekoaren aurkako Plataformarekin eta Gibraltargo Eskualdeko Udalen Mankomunitatearekin Tireless urpeko nuklearra Britainia Handira eraman dezaten".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Parlamentuko Askotariko Taldeko Milagros Rubiok, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du Osoko Bilkuran:

Joan zen maiatzaren 19az geroztik ainguraturik dago Gibraltarren Tireless izeneko urpeko nuklearra, konponketak egiteko. Bistakoa da Espainiako Estatuko herrien menpekotasuna Espainiako Gobernuak aliatutzat dituen potentzia militarrekiko. Egunotan Gibraltargo eskualdearen inguruko herrien txanda da, baina bihar beste edozeinena izan daiteke.

Era berean, egoera honek agerian uzten du energia nuklearraren erabileraren arriskua, lehendik ere ezaguna, eta helburu militarretarako baliatzeak larriagotua. Horretara bideratzen diren mila-

ka milioiek gizarte ongizateko xede onetarako erabiliz gero zoritxarra eta txirotasuna ez lirateke jaun eta jabe izanen.

Tireless urpekoa Gibraltargo eskualdean gelditzearen kontra arrazoi asko plazaratu daiteke ikuspegi antimilitarista eta antinuklearretik, beraz. Horiei, arazoa jasaten ari diren bizilagunendako elkartasunean oinarriturikoak gehitu behar zaizkie. Obskurantismoaren eta prebentzio neurririk ezaren aurrean, Gibraltargo eskualdeko Udalerrien Mankomunitateak eta "Tireless urpeko nuklear britainiarraren aurkako herri plataforma" deiturikoak salatu izan dute egoeraren arriskua eta urpekoa Britainia Handira berehala eraman dezatela eskatu.

Horregatik guztiagatik, herrien arteko elkartasun printzipioa dela medio, Espainiako Gobernuaren jarrerak, edozein unetan, eragina izan dezakeelako bere esparru juridikoaren menpeko edozein lurraldetan, bai eta ingurumenaren arloko arrazoiengatik eta ikuspegi antimilitarista batetik ere, honako erabaki proposamen hau aurkezten dut, bozka dadin puntuz puntu:

1.-Elkartasunez bat egitea Urpekoaren kontrako Plataformak eta Gibraltargo eskualdeko Udalerrien Mankomunitateak luzatutako eskaerarekin, alegia, Tireless urpeko nuklearra berehala Britainia Handira eraman dezatela eskatzearekin.

2. Helburu militarrek dituzten garraibide eta gerrabide nuklearen zirkulazioaren kontra gaude-la adieraztea.

3. Onesten dena Gibraltargo eskualdeko Udalerrien Mankomunitateari eta Urpekoaren kontrako Herri Plataformari igortzea, bai eta Britainia Handiko Gobernuari ere, enbaxada edo kontsulatu gertuenaren bitartez.

Iruñean, 2000ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da toxikologia klinikoko unitate bat sor dezan

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da toxikologia klinikoko unitate bat sor dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osasun Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 192 eta 193. artikuluetan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaida dadin.

Nafarroako Larrialdiei buruzko VI. Jardunaldietan agerian geratu da medikamentuek, drogen gaindosiek eta gasek eragindako intoxikazioek askotan heriotza ekartzen dutela. Espainian, heriotza eragiten duten intoxikazioetarako bigarren arrazoi garrantzitsuenak karbono monoxidoaren arnastea izan da.

Nafarroan, urtean zehar, 1.500 intoxikazio gertatzen dira, elikagaiek sortutakoez gainera. Horietatik % 20 medikamentuek eragindakoak dira, 60 eta 70 bitarte perretxikoez eragin dituzte eta 500 bat intoxikazio alkoholaren eraginez gertatu dira.

Azken urte hauetan, kopuru horiek gora egin dute. Intoxikazioek, askotan, heriotza ere ekar dezakete; beste batzutan, behar den bezalako jarraipena eginez zaindu beharreko ondorioak uzten dituzte. "Intoxikazioetan, gehienetan, kontzientzia mailak behera egiten du, eta horrek gaixoa koma egoeran sartzea eragin dezake. Hori gertatzen da burmuinean eta beste organo batzuetan ere oxigenoa falta delako", esan zuen Bideko Amabirjina Ospitaleko larrialdietako sendagile Pinillos dokto-reak.

Intoxikazio bat gertatzen denean, gauzarik garrantzitsuenak azkar jokatzeko da, baina azkar jokatzeko bezain garrantzitsua suertatzen da gaixoaren geroko jarraipena eta zainketarako espezialisten arteko koordinazioa. Ukitutako pertsonen tratamendu jakin bat eraman behar dute intoxikazioa eta gero. Askotan, gazteak dira intoxikatutakoak, eta epe luzean arazoak izan ditzakete behar den jarraipena egin ezean.

Aipatu jardunaldietan, agerian geratu zen Nafarroan ez dagoela Foru Komunitatean gertatzen diren 1.500 intoxikazioen jarraipena egiteko toxikologia klinikoko unitaterik. Intoxikazioen kopuru horrek, gure ustez, ongi justifikatzen du unitate berezi bat sortzea, hain zuzen ere Nafarroan gertatzen diren kasuen jarraipenari propio emandako langileek osatuta.

Egoera hori dela eta, Nafarroako Demokraten Elkarguneak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du toxikologia klinikoko unitate bat sor dezan, Nafarroan gertatzen diren intoxikazioei lehenbiziko unetik erantzuna emateko eta haien jarraipena egiteko.

Iruñean, 2000ko azaroaren 21ean

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zeinuen hizkuntza ofizialki onar dezan

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zeinuen hizkuntza ofizialki onar dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Gizarte Gaietako Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Gizarte Gaietarako Baztordean eztabaida eta bozka dadin.

Nafarroako Gorren Elkarteak berriki aurkeztu dio Nafarroako gizarteari funtsezkoa duen eskaera bat: zeinuen hizkuntzaren onarpena. Espainiako Gorren Konfederazio Nazionalak, bere baitan 93 elkarte eta 10 federazio biltzen dituenak, eta Nafarroako Gorren Elkarteak azaldu dute zein neurri behar diren zeinuen hizkuntza pixkanaka onartzen joan dadin.

2001. urtea Hizkuntzen Nazioarteko Urtea dela deklaratu da eta horren harira, Espainiako Gorren Konfederazioak (CNSE) gorren hizkuntzaren inguruko sentsibilizazio plan bat abiarazi du, haren onarpena xedetzat harturik.

Espainiako gorren % 80 "alfabetatugabe funtzionalak" dira, zeinuen hizkuntza komunikaziorako beste edozein bide bezala ez ohi denez erabil-

tzen, irakurri eta idazteko zailtasun handiak dituztelako.

Mozio honen bitartez, gure taldeak gorrek plazaratutako eskaerak jaso nahi ditu. Arazoa hobekien ezagutzen dutenak haiek dira, eta guri dago-kiguna da gizartean betetzen duten papera aberasteko eta haien bizi kalitatea hobetzeko behar diren lege-ekimenez jabetzea.

Zeinuen hizkuntza berezkoena eta egokiena da gorrentzat, eta gizarteak begirunea zor dio hizkuntza horren berezitasunari, gorrek hori dutelako lanabesik eraginkorra komunikaziorako eskubi-deaz baliatzeko, hezkuntza arloan aritzeko eta gizartean beren tokia izateko. Gure herrialdean 37.000 pertsona inguruk ezagutu eta erabiltzen dute zeinuen hizkuntza.

Kopuru horri gehitu behar zaio elkarrekin zerikusia duten erabiltzaileen kopurua –guraso gorren seme-alabak, haur gorrak, gorren senitartekoak, eta abar–, profesionalena eta beste pertsona batzuen, bai eta zeinuen hizkuntza ikasten duten ikasle ez-gorrena ere (urtean 10.000 inguru). Guztira, 70.000 pertsona inguru izanen dira Espainia osoan zeinuen hizkuntza erabiltzen dutenak.

Gorren erreibindikazioa da gobernu autonomikoek ofizialki onartzea zeinuen hizkuntza eta interpreteak egotea arlo guztietan.

Horregatik guztiatik, erabaki proposamen hau aurkeztu da:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ofizialki onar dezan zeinuen hizkuntza eta interpreteak jar ditzan arlo guztietan. Hala ezartzeak Foru Administrazioarentzat izanen lituzkeen behar eta ondorioen ebaluazioa egin beharko da.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Nafarroako Foru Komunitateko aurrekontuetan berariazko kontusail bat sortzeko, zeinuen hizkuntza sustatu, garatu eta ikertzeko.

Iruñean, 2000ko azaroaren 22an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da txosten bat aurkez dezan, anorexia eta bulimia duten gaixoen baldintzei, ezaugarriei eta tratamenduari buruz

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK AURKEZTUA

Foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da txosten bat aurkez dezan, anorexia eta bulimia duten gaixoen baldintzei, ezaugarriei eta tratamenduari buruz".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaikiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnalek, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozio hau aurkeztuko du, eztabaidatu eta bozkatzeko.

Elikadurako nahasketak errealitate gero eta kezagarriagoa bihurtu dira gizarte aurreratuetan. Nafarroako Foru Komunitatea ez da salbuespena, eta hainbat kasu daude, psikiatria kontsultetara jotzen duten haur eta nerabeenak.

Parlamentari honen kezka gaixo hauei ematen zaien laguntzaren egokitasunaren ingurukoa da. Dudarik gabe, Nafarroako osasun sare publikoko profesionalek eskura dituzten bitarteko guztiez baliatzen dira eri hauei behar duten atentzioa emateko.

Parlamentuko ekimen honen xedea da jakitea, batetik, anorexia eta bulimiako zenbat kasu izan diren osasun publikoan eta bestetik, zein tratamendu erabili den eritasun hauek sendatzeko, atzematen direnetik ospitaleko tratamendura bitartekoa.

Erabaki proposamen honen bitartez eskatzen den txostena behin aztertutik, Parlamentuak eskura dituen bitarteko guztiak erabili beharko lituzke arazo hauen tratamendua, atzematen direnetik ospitaleko tratamendu psikiatrikora bitartekoa, ahal den onena izan dadin baldintzak eta kalitatea hobetzen laguntzeko, horretarako premia egonez gero.

Horregatik guztiagatik, erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak premiatzen du Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentua 2001. urteko lehen hiruhilabetearen txosten bat aurkez dezan anorexia eta bulimia duten gaixoen egungo tratamenduaren baldintza eta ezaugarriei buruz, bai eta ospitaleratzei buruz ere, eri horiendako ospitaleko laguntza beharrezkoa den alderdietan hobetu ahal izateko.

Iruñean, 2000ko azaroaren 23an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat..... 6.200 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 ».</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 ».</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
---	---